



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 10a

61. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (22. or.).

## **Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2018ko apirilaren 9an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2018ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

I. Sarrera (23. or.).

II. Iritzia (25. or.).

II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (26. or.).

II.2. Legezkotasunaren betetzeari buruzko iritzia (26. or.).

III. Udalaren 2016ko kontu orokorraren laburpena (27. or.).

III.1. 2016ko aurrekontu bateratuaren beteazpenaren egoera-orria (27. or.).

III.2. 2016ko aurrekontu-emaizta bateratua (28. or.).

III.3. Diruzaintza-gerakin bateratuaren egoera-orria 2016ko abenduaren 31n (28. or.).

III.4. Udalaren 2016ko abenduaren 31ko egoera-balantzea (29. or.).

III.5. Udalaren emaitza ekonomikoa 2016ko abenduaren 31n (30. or.).

IV. Iruzkina, oharra eta gomendioak (31. or.).

IV.1 Udalaren eta haren erakunde autonomoen egoera ekonomikoa finantzarioa (31. or.).

IV.2. Aurrekontu-egonkortasuneko eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea (33. or.).

IV.3. Alderdi orokorrak (34. or.).

IV.4. Langile-gastuak (36. or.).

IV.5. Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak (39. or.).

IV.6. Transferentzien ondoriozko gastuak (41. or.).

IV.7. Inbertsioak (42. or.).

IV.8. Aurrekontuko diru-sarrerak (43. or.).

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2017rako jarduketa-programari jarraituz, Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu du. Honako hauek osatuta daude kontu horiek, funtsean: data horretan amaitutako ekitaldiko aurrekontuko likidazioaren egoera-orriak, aurrekontu-emaiza, diruzaintza-gerakina, balantzea eta emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua.

Urteko kontuen finantza-auditoriarekin batera, legezketasuna betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2016ko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Zangozako Udalari 2016ko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparrua, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea eta Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoa, bai eta sektorekako araudi indarduna ere. Halaber, nabarmendu behar dugu 2016ko aurrekontua aurkezten dela Nafarroako Gobernuak irailaren 23ko 234/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsi zuen toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Zangozako udalerrak 69,8 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 5.002 biztanle dauzka 2016ko urtarrilaren 1ean. Udalerrri konposatua da, bi kontzeju dituena: Gabarderal (129 biztanle) eta Rocaforte (38 biztanle).

Udalak, bere kudeaketarako, hiru erakunde autonomo sortuak ditu: "Juan Francés Iribarren" musika eskola, "San Vicente Paul" zahar-etxea eta Kirol Patronatua.

Udalaren eta haren menpeko enteen datu ekonomiko eta langileei buruzko datu nagusiak honako hauek dira 2016ko ekitaldiaren itxieran:

Entitatea	Aitortutako eskubideak	Aitortutako betebeharrak	Langileak, 2016-12-31n
Udala	4.814.476	4.284.644	30
Kirol Patronatua	263.783	261.143	1
Musika eskola	461.457	460.057	20
Zahar-etxea	1.390.580	1.223.548	39
Bateratzearen doitzeak	(648.903)	(648.903)	-
<b>Guztira</b>	<b>6.281.395</b>	<b>5.580.490</b>	<b>90</b>

2016an, Udalak 620.903 euroko ekarpena egin die bere erakunde autonomoei. Banaketaren xehetasunak hurrengo taulan datoz:

Entitatea	Transferentzia arruntak	Transferentziak transferentziak	Guztira
Kirol Patronatua	240.224	1.428	241.652
Musika eskola	203.889	4.000	207.889
Zahar-etxea	171.362	0	171.362
<b>Guztira</b>	<b>615.475</b>	<b>5.428</b>	<b>620.903</b>

Bestetik, zahar-etxeak Udalari 28.000 euro ordaindu dizkio kudeaketa administratiboan kontzeptuan.

Zangozako Udala Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitateko partaidea da; izan ere mankomunitate horrek ematen dizkio uraren goi-horniduraren eta saneamenduaren zerbitzuak, hiri hondakin solidoen tratamenduaren zerbitzua eta oinarriko gizarte zerbitzua. Zerbitzu man-

komunatu horiek 298.495 euroko gastua eragin dizkiote Udalari; kopuru horretatik, ehuneko 72 uraren goi-hornidurari dagokio.

Hurrengo taulan azaltzen ditugu Udalak ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Zerbitzua	Udala	Erakunde autono- moak	Mankomunitatea	Emakida	Kontratua Zerbitzua
Zerbitzu administratibo orokorrak	X				
Udaltzaingoa	X				
Musika eskola		X			
Zahar-etxea		X			
Hirigintza					X
Kaleen mantentze-lanak	X				
Lorategien mantentze-lanak	X				
Herri-bideen mantentze-lanak	X				
Ur-hornidura (goi-hornidura)			X		
Ur-hornidura (behe-hornidura)	X				
Hiri hondakinak			X		
Kale garbiketa					X
Udal hilerria	X				
Ikastetxeen mantentze-lanak	X				
Gizarte zerbitzuak			X		
Etxez etxeko laguntza			X		
Liburutegia	X				
Kultur etxea	X				
Enplegu sozial babestua			X		
Herritarrentzako arreta bulegoa	X				
Errolda	X				
Diru-bilketa	X				
Diru-bilketa exekutiboa					X
Futbol-zelaiak		X			
Cantolagua kirol-eremua		X		X	
Udal-kiroldegia.					X
Udal kanpina				X	
Haur eskolaren kudeaketa					X
Ikastetxe publikoaren garbiketa-lanak					X

2016ko ekitaldirako aurrekontu orokorra 2016ko apirilaren 26an onetsi zuen, hasiera batez, Udalaren Osoko Bilkurak; behin betiko onespena, berriz, 2016ko maiatzaren 5ean eman zitzaion.

Kontu orokorrak udalaren eta erakunde autonomoen aurrekontuen egoera-orri bateratuak bai-zik ez du eransten.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, 2016ko ekitaldiko kontu orokorraren inguruko gure iritzia azaltzen dugu. Hirugarrenean, Udalaren finantzen egoera-orri nagusien laburpen bat ematen dugu. Eta laugarrenean, zenbait ohar eta ondorio jaso ditugu (honako gai hauei buruzkoak: egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta kudeaketaren beste alderdi garrantzitsu batzuk), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun gomendioak ere.

Landa-lana 2017ko irailean eta urrian egin zuen enpresa kontratatatu batek Kontuen Ganberako auditore baten zuzendaritzaren eta gainbegiratzearen pean. Halaber, Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administratiboen laguntza izan da.

Jarduketa honen emaitzak Zangozako Udaleko alkateari jakinarazi zitzaizkion, kasua bazen egokitzat jotzen zituen alegazioak aurkez zitzan, Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen 19/1984 Foru Legearen 11.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz. Epea iraganda, behin-behineko txostenari ez zaio alegaziorik aurkeztu.

Lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik eskerrak ematen dizkiegu Zangozako Udaleko eta haren erakunde autonomoetako langileei.

## II. IRITZIA

Zangozako Udalaren 2016ko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haren kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako III. atalean.

### *UDALAREN ERANTZUKIZUNA*

Udalaren kontu-hartzailletza da kontu orokorra egiteko ardura duena. Halako moduz egin behar du non kontu horrek leialki irudikatuko baititu Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko kontu orokorra 2017ko apirilaren 25ean onetsi zuen Udalaren Osoko Bilkurak.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

### *NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz, gure fiskalizazioan oinarrituta. Horretarako, erantzukizun hori bete dugu kanpo kontrolero erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek exijitzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta betearaztea egin ditzagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabekoak izatea.

Fiskalizazio batek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabekoak dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan –entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita– inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasunaren eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasunaren ebaluazioa, bai eta kontu orokorren aurkezpenaren ebaluazioa ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia biltzen du finantzen eta betetzearen gainean egin dugun fiskalizazioari buruzko iritziak funtsa izateko.

## II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

### *IRITZIAREN OINARRIA, SALBUESPENEKIN*

a) Udalak eta haren erakunde autonomoek ez dute behar bezala identifikatutako eta balioetsitako ondasunen inbentariarik; hori dela eta, ezin izan dugu egiaztatu Udalaren eta haren erakunde autonomoen balantzearen ibilgetuko saldoaren arrazoizkotasuna; saldo horren kopuru metatuta 16,10 milioikoa dela zenbatetsi da.

b) Udalaren egoeraren balantzeak inkoherentzia aipagarriak dauzka “funts propioen” ondaremasaren osaketan; bereziki, ekitaldiko emaitzetan duen islari dagokionez.

### *IRITZIA*

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespen batzuekin" paragrafoan azaldutako egitateen balizko eraginengatik ez bada, erantsitako Udalaren kontu orokorrak irudi leiala erakusten du alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta entitate horien 2016ko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNAREN BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, 2016ko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.

**III. UDALAREN 2016ko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren, 2016ko kontabilitatearen egoera-orri bateratu garrantzitsuenak azaltzen ditugu. Zehaztu beharra dago kontu orokorrak ez duela jasotzen Udalaren eta haren erakunde autonomoen balantzearen eta emaitzen kontuaren bateratzerik; hori dela eta, atal honetan erakusten diren egoera-orriak Udalari buruzkoak dira soil-soilik.

**III.1. 2016ko AURREKONTU BATERATUAREN BETEARAZPENAREN EGOERA-ORRIA**

## Diru-sarrerak, kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulua	Izena	Hasierako aurrekontua	Idak.	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako eskubide garbiak	Betetzearen ehunekoa	Kobrantzak	Kobratzeke dagoena
1	Zuzeneko zergak	1.596.476	0	1.596.476	1.557.138	98	1.444.939	112.199
2	Zeharkako zergak	40.000	49.647	89.647	100.522	112	93.474	7.048
3	Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.198.598	3.593	2.202.191	2.103.716	96	1.941.344	162.373
4	Transferentzia arruntak	1.713.762	-6.993	1.706.769	1.691.540	99	1.528.355	163.185
5	Ondare bidezko diru-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	97.844	0	97.844	93.792	96	24.737	69.054
6	Inbertsio errealak besterentzea	70.000	0	70.000	0	-	0	0
7	Kapital-transferentziak	219.342	26.872	246.214	317.687	129	317.687	0
8	Finantza-aktiboak	0	97.517	97.517	0	-	0	0
9	Finantza-pasiboak	425.790	0	425.790	417.000	98	417.000	0
<b>Guztira</b>		<b>6.361.812</b>	<b>170.636</b>	<b>6.532.448</b>	<b>6.281.395</b>	<b>96</b>	<b>5.767.536</b>	<b>513.859</b>

## Gastuak kapitulu ekonomikoen arabera

Kapitulua	Izena	Hasierako aurrekontua	Aldak.	Behin betiko aurrekontua	Aitortutako betebeharrak garbiak	Betetzearen ehunekoa	Ordainketak	Ordaintzeke dagoena
1	Langile-gastuak	2.805.879	27.098	2.832.977	2.728.349	96	2.727.587	762
2	Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	1.993.956	56.678	2.050.634	1.958.598	96	1.841.205	117.393
3	Finantza-gastuak	14.875	0	14.875	7.128	48	7.128	0
4	Transfer. arruntak	518.661	13.444	532.105	433.708	82	303.568	130.140
6	Inbertsio errealak	825.874	50.544	876.418	232.268	27	203.184	29.084
7	Kapital-transferentziak	2.000	22.872	24.872	22.872	92	22.872	0
8	Finantza-aktiboak	3.000	0	3.000	0	0	0	0
9	Finantza-pasiboak	197.567	0	197.567	197.567	100	197.567	0
<b>Guztira</b>		<b>6.361.812</b>	<b>170.636</b>	<b>6.532.448</b>	<b>5.580.490</b>	<b>85</b>	<b>5.303.111</b>	<b>277.379</b>

Oharra: Kontuen Ganbera honek doitutako likidazio bateratuak (ikus IV.3 atala).

## III.2. 2016ko AURREKONTU-EMAITZA BATERATUA

Kontzeptua	2016ko ekitaldia
+ Aitortutako eskubideak	6.281.395
- Aitortutako betebeharrak	5.580.490
<b>Aurrekontu-emaiza</b>	<b>700.905</b>
<b>Doikuntzak</b>	
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0
+ Finantzaketaren desbideratze negatiboak	0
+ Diruzaintza-gerakinarekin gehikuntza bidez finantzatutako gastuak	33.512
<b>Aurrekontu-emaiza doitua</b>	<b>734.417</b>

Oharra: Kontuen Ganbera honek doitutako egoera-orria (ikus IV.3 atala).

## III.3. DIRUZAINZTA-GERAKIN BATERATUAREN EGOERA-ORRIA 2016KO ABENDUAREN 31n

Kontzeptua	2016ko ekitaldia
(+) Kobratzeko dauden eskubideak	735.205
(+) Diru-sarrerak: Aurtengo ekitaldia	513.859
(+) Diru-sarrerak: Ixkitako ekitaldiak	1.297.982
(+) Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak	193.594
(+) Gastuen itzulketak	0
(-) Bilketa zaileko eskubideak	1.270.230
(-) Aplikatzeke dauden kobrantzak	0
(-) Ordaintzeko dauden betebeharrak	572.908
(-) Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	277.379
(-) Gastuen aurrekontua: Ixkitako ekitaldiak	130.899
(-) Aurrekontuz kanpoko gastuak	164.630
(-) Diru-sarreraren itzulketak	0
(+) Aplikatzeke dauden gastuak	0
(+) Diruzaintzako funts likidoak	889.655
(+) Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0
<b>Diruzaintza-gerakina, guztira</b>	<b>1.051.952</b>
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	0
Baliabide atxikien diruzaintza-gerakina	708.441
<b>Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina</b>	<b>343.511</b>

Oharra: Kontuen Ganbera honek doitutako egoera-orria (ikus IV.3 atala).



## III.4. UDALAREN 2016ko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZEA

## Aktiboa

	2015	2016
<b>Ibilgetua</b>	<b>15.145.820</b>	<b>15.365.376</b>
Ibilgetu materiala	11.689.149	11.829.395
Ibilgetu ez-materiala	297.874	299.059
Erabilera orokorreko azpiegitura eta ondasunetako inbertsioak	3.158.797	3.225.633
Herri ondasunetan egindako inbertsioak	0	11.289
<b>Zirkulatzaila</b>	<b>2.410.559</b>	<b>2.872.138</b>
Zordunak	1.923.780	2.030.049
Finantza-kontuak	486.779	842.089
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>17.556.379</b>	<b>18.237.514</b>

## Pasiboa

	2015	2016
<b>Funts berekiak</b>	<b>15.636.446</b>	<b>16.056.602</b>
Ondarea	-1.541.506	-1.541.506
Aplikatzeko dauden emaitzak	2.564.283	2.564.283
Ekitaldiko emaitza ekonomikoak (etekina)	5.710.117	6.006.930
Jasotako kapitaleko diru-laguntzak	8.903.551	9.026.894
<b>Epe luzeko hartzekodunak</b>	<b>1.206.186</b>	<b>1.425.619</b>
Jasotako maileguak	1.206.186	1.425.619
<b>Epe laburreko hartzekodunak</b>	<b>713.748</b>	<b>755.293</b>
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, aurtengo aurrekontuan	432.377	417.249
Aitortutako betebeharren hartzekodunak, itxitako aurrekontuetan	22.337	105.660
Ente publikoak, kobratzeke dauden eskubideengatik	113.715	122.020
Ente publikoak, likidatzeke dauden diru-sarrerengatik	19.508	20.708
Entitate publikoak	54.496	32.588
Aurrekontukoak ez diren bestelako hartzekodunak	71.315	57.068
<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>17.556.379</b>	<b>18.237.514</b>

## III.5. UDALAREN EMAITZA EKONOMIKOA 2016ko ABENDUAREN 31n

## Ekitaldiko emaitza arruntak

2015		2016	2015		2016		
Deskribapena			Deskribapena				
3	Izakinak		3	Hasierako izakinak			
61	Langile-gastuak	1.396.891	1.447.540	70	Salmentak	607.410	826.241
62	Finantza-gastuak	12.957	7.128	71	Ondasunaren eta enpresaren errenta	523.566	104.972
63	Tributuak	1.660,86	18.122,19	72	Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	1.300.100	1.343.790
64	Lanak, zuzkidurak eta kanpoko zerbitzuak	1.516.353	1.392.483	73	Errentaren gaineko zerga arruntak	267.498	272.738
67	Transferentzia arruntak	968.412	996.820	75	Ustiapenerako diru-laguntzak	0,00	0
68	Kapital-transferentziak	0	5.428	76	Transferentzia arruntak	1.615.981	1.673.404
800	Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	501.957	406.613	77	Kapitalaren gaineko zergak	55.048	41.132
				78	Bestelako diru-sarrerak	28.629	11.858
<b>Guztira</b>				<b>Guztira</b>		<b>4.398.231</b>	<b>4.274.134</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Zor	2015	2016
80 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo zorduna)	0	0
82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo zorduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	456	1.692
89 Etekin garbia, guztira (saldo hartzekoduna)	501.501	404.921
<b>Guztira</b>	<b>501.957</b>	<b>406.613</b>

Hartzeko	2015	2016
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo hartzekoduna)	501.957	406.613
82 Ekitaldiko aparteko emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	0
89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>501.957</b>	<b>406.613</b>

#### IV. IRUZKINAK, OHARRAK ETA GOMENDIOAK

Egindako fiskalizazioaren emaitza gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta Ganbera honen ustez txostenaren hartzaile eta erabiltzaileentzat interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri bat ere. Halaber, jasotzen ditu Ganbera honen ustez Udalaren kudeaketa hobetzeko beharrezkoak diren gomendioak.

Halaber, fiskalizazio-txostenaren gaineko iritziaren salbuespenei buruzko informazio xehea gehitu da.

##### IV.1 UDALAREN ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOEN EGOERA EKONOMIKO FINANTZARIOA

Aitortutako betebeharrak 5,58 milioioak izan ziren, eta likidatutako eskubideak, berriz, 6,28 milioi eurokoak. Horien betetze-maila ehuneko 85ekoa eta 96koa izan da, hurrenez hurren. Kobrantsen eta ordaintzen portzentajeak ehuneko 92 eta ehuneko 95 izan dira, hurrenez hurren.

Jatorriari begiratuta, langileria-gastuek ehuneko 49ko pisua dute, gastu arrunt guztiek guztizko gastuaren ehuneko 92 egiten dute, eta inbertsioak eta finantza-pasiboak ehuneko lau dira, hurrenez hurren. Tributu bidezko diru-sarrerak eta diru-laguntzak diru-sarrera guztien ehuneko 60 eta 32 dira, hurrenez hurren. Diru-sarreraren ehuneko zazpi zorpetze berri batetik heldu dira; zehazki, argiteria publikoa berritzeko 417.000 euroko mailegu bat –interesik gabe– hartzetik heldu dira. 2017ko ekitaldian zehar egin dira obra horiek.

Laburbilduz, Udalak 2016an eta 2015ean gastatutako 100 euro bakoitza honako hauetara bideratu ziren eta honela finantzatu ziren:

Gastuaren izaera	2015	2016	Finantzabidea	2015	2016
Langileak	47	49	Tributu bidezko diru-sarrerak	67	60
Bestelako gastu arruntak	37	35	Transferentziak	29	32
Transferentziak	8	8	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	3	1
Inbertsioak	5	4	Inbertsioak	1	0
Finantza-pasiboak	4	4	Finantza-pasiboak	0	7
	100	100		100	100

Hona hemen Udalaren 2016rako aurrekontu bateratuaren betetzeari buruzko datu ekonomi-koak eta 2015ekoarekiko alderaketa:

Adierazleak eta magnitudeak	2015 <sup>(1)</sup>	2016	2016/15 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak	5.591.046	5.580.490	0
Likidatutako eskubideak	5.653.087	6.281.395	11
Gastuen betetzea (%)	95	85	
Diru-sarreraren betetzea (%)	96	96	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	5.106.570	5.127.783	0
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	5.093.612	5.120.655	1
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	286.909	255.140	-11
Finantza-eragiketengatiko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	197.567	197.567	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	5.506.956	5.546.708	1
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3ra)	3.782.363	3.761.376	-1
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	146.132	317.687	117
Finantza-eragiketengatiko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)	0	417.000	
Diru-laguntzen mendekotasuna (%)	29	32	
Tributu bidezko diru-sarrerak gastu arruntan gainean (%)	74	73	
Gastu arrunta biztanleko	1.017	1.025	1
Biztanle bakoitzeko kapital-gastua	57	51	-10
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	753	752	-
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	259.609	481.472	85
Aurrekontu-emaizta doitua	Ez dago eskuragarri	734.417	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	Ez dago eskuragarri	343.511	
Aurrezki gordina	413.343	426.053	3
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	210.524	204.695	-3
Aurrezki garbia	202.819	221.358	9
Finantza-zamaren adierazlea <sup>(2)</sup>	4	4	
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%) <sup>(2)</sup>	8	8	
Zorpetze-ahalmena (%)	4	4	
Zor bizia	1.206.186	1.425.619	18
Zorpetze-maila <sup>(2)</sup>	22	26	
Biztanle bakoitzeko zorra	240	285	19

(1) Auditatu gabeko ekitaldia

(2) Ratioen izendapen berriak, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiak sartutakoak.

Aitortutako eskubide bateratuak ehuneko 11 handitu dira; horren arrazoia da, funtsean, 417.000 euroko mailegu bat hartu dela. Diru-sarrera arruntek ehuneko bateko igoera txikia izan dute; kapitaleko diru-sarrerak, berriz, ehuneko 117 egin dute gora, batez ere Udalak jasotako kapitaleko transferentzien bolumena handiagoa izan delako.

Aitortutako betebeharrak ia aldaketarik ez dute: 10.556 euro beheratu dira 2016an. Egoera berdin-berdina ikus daiteke gastu arruntetan; kapitaleko gastuetan, berriz, jaitsiera nabarmena aurkitu dugu, ehuneko 11koa.

Aurrekontuko saldo ez-finantzarioak ehuneko 85eko igoera izan du: 0,48 milioikoa izatera iritsi da.

Aurrekontu-emaizta doitua 0,73 milioi egiten du eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinak, berriz, 0,34 milioi euro.

Aurrezki gordina ehuneko hiru handitu da, eta finantza-zama portzentaje berean urritu da. Horren emaitza da aurrezki garbiak ehuneko bederatziko igoera izan duela eta 0,22 milioi euroraino iritsi dela.

Epe luzeko zorrak ehuneko 18 egin du gora, 1,43 milioikoa izateraino; diru-sarrera arrunten ehuneko 26 egiten du (2015ean, portzentaje hori ehuneko 22koa zen). Biztanle bakoitzeko zorra ehuneko 19 handitu da: 285 eurokoa da. Erakunde autonomoek ez dute finantza-zorrik.

Horrenbestez, Udalaren finantza-egoera bateratuaren ezaugarria da aurreztutako zenbateko positiboak dituela, bai eta diruzaintzako gerakin eta aurrekontu-emaizta positiboak ere. 2016an zorra handitu da, baina arrazoizko maila ekonomikoen barruan dago.

Azkenik, hurrengo taulan erakusten dugu zein izan den Udalaren eta haren hiru erakunde autonomoen aurrekontu-emaiztaren eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinaren 2015eko eta 2016ko bilakaera.

Erakunde autonomoak	Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina		Aurrekontu-emaizta	
	2015 <sup>(1)</sup>	2016	2015 <sup>(1)</sup>	2016
Udala	186.372	179.864	210.219	563.344
Kirol Patronatua	-52.885	1.550	-52.885	2.641
Musika eskola	0	1.400	0	1.400
Zahar-etxea	2.226	160.839	11.805	167.032

<sup>(1)</sup> Auditatu gabeko ekitaldia

Ikusten denez, oro har bi magnitudeen bilakaera positiboa izan da lau entitateentzat.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoari jarraituz, Udalak honako arau fiskal hauek bete behar ditu:

- Aurrekontu-egonkortasuna, edo ekitaldiko oreka/finantzaketa-gaitasuna, kontabilitate nazionalerako terminoetan neurtua.
- Gastu-arauak –hau da, Udalaren 2016ko gastu konputagarriaren eta 2015eko gastuaren artean dagoen aldeak– ezin du gainditu BPGaren hazkundearen erreferentziako tasa. Tasa hori ehuneko 1,8an ezarri zen ekitaldi horretarako.
- Zor publikoaren iraunkortasunak esan nahi du Udalaren zorrak, kontabilitate nazionalerako terminoetan, ezin duela gainditu diru-sarrera arrunten ehuneko 110a.
- Merkataritza-zorren iraunkortasunak esan nahi du hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin duela gainditu, orokorrean, 30 eguneko muga.
- Zuhertasun finantzarioaren printzipioa, edo zorpetze-eragiketa berriek, beren kostua ahal den guztian gutxitzeko eta Estatuko finantzaketaren kostua ez gainditzeko, bete behar dituzten baldintzen multzoa.

Egindako azterketatik honako hauek azpimarratuko ditugu:

**Bateratzearen perimetroa**, kontabilitate nazionalerako eraginetarako, Udalak eta haren erakunde autonomoek osatzen dute.

#### AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ARAUA

Udalak 2016an arau hori bete du, zeren eta gaitasuna lortu baitu 0,44 milioi finantzatzeko, ondoren azaltzen den bezala:

Kontzeptua	2016
Aurrekontuko saldo ez-finantzarioa	481.472
Zalantza-zko diru-bilketarengatik doikuntza	43.367
Finantzaketa-ahalmena	438.105

**GASTUAREN ARAUA**

Udalak aurkezten dituen kalkuluak Udalaren eta haren erakunde autonomoen datu metatuen gainean egin dira, bateratzearen doikuntzak kendu gabe. Hala eta guztiz ere, doikuntza horiek ez dira aipagarriak.

Aurrekoarekin bat, 2016ko ekitaldiko gastu konputagarria 2015eko ekitaldikoa baino 0,48 milioi txikiagoa da; horrenbestez, bete egiten da arau hori.

Kontzeptua	2015	2016
Oinarri-urtearen gastu konputagarria	4.940.266	4.544.115
BPGaren erreferentziako tasa	1,018	
2016rako gehieneko gastu konputagarria	5.029.190	

**FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN ARAUA**

2016ko abenduaren 31ko zor bizia 1,43 milioikoa da, eta zenbateko horrek 2016ko ekitaldiko diru-sarrerara arrunten ehuneko 26 egiten du; portzentaje hori arau indardunak ezartzen duen ehuneko 110eko mugatik behera dago.

**HORNITZAILEEI ORDAINTZEKO EPEA**

Udalaren ordainketak direla eta, honako hau izan da adierazle horren batez besteko balioa 2016an:

Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea	2016
Lehenengo hiruhilekoa	-18,85
Bigarren hiruhilekoa	-20,71
Hirugarren hiruhilekoa	-18,09
Laugarren hiruhilekoa	-20,85

Horrenbestez, Udalak bete egin du printzipio hori, zeren eta ordaintzeko epea txikiagoa baita araudi indardunak merkataritza-eragiketarako ezarritakoa baino (30 egun naturaleko epea).

**ZUHURTASUN FINANTZARIOA**

Udalak printzipio hori bete egin du, zeren eta 2016an itundutako zorpetze berria interesik gabe formalizatu baita.

*Udalak eta haren erakunde autonomoek egindako barne-eragiketak kentzea gomendatzen dugu, aurrekontu-egonkortasunaren arauen betetzea egiaztatze aldera.*

**IV.3. ALDERDI OROKORRAK**

- Zangozako Udalaren Osoko Bilkurak 2016ko apirilaren 26an eman zien hasierako onespena aurrekontu orokor bakarrari eta 2016ko ekitaldi ekonomikorako betetze-oinarriari. Behin betiko onespena 2016ko maiatzaren 5ean eman zitzaion.

- Udalaren eta musika eskolaren aurrekontu-aldaketen lagin bat aztertu dugu, eta ondorioztatu dugu aurrekontuei buruzko araudian ezarritakoaren arabekoak direla, honako salbuespen honekin: 29.546 euroko bi kreditu berezi badaude hasieran aurreikusitako gainetik lortu diren diru-sarrerekin finantzatzen direnak; diru-bilketa handiago hori ez zen gertatzen hain zuen ere onspenaren unean, Kontu-hartzaitzaren txostenak nabarmentzen zuen bezala. Aldaketa hori onetsi ondoren gertatu da, hain zuzen ere, diru-bilketa handiago hori.

- Kontu orokorrak, erakunde autonomoei dagokienez, soilik jasotzen du Kontu-hartzaitzak Kirol Patronatuaren aurrekontuaren likidazioari buruz egin duen txostena.

- Kontu orokorrean ez da jasotzen, ezta ere, Udalaren eta haren erakunde autonomoen balantzea eta emaitza bateratuen kontua, ez eta oroitidazki ekonomiko bateratua ere.

- Bestalde, aurrekontuaren egoera-orriak bateratzeko prozesuan, honako akats hauek aurkitu dira:

a) Ez da kendu Udalak musika eskolari emandako 4.000 euroko diru-laguntza.

b) Diru-sarrera bateratuen egoera-orrian, Udalak ez du kendu zahar-etxeari egindako 28.000 euroko ekarpena; gastuen egoera-orrian, berriz, kendu egin da.

c) Udalak diru-sarrera bateratuetatik kendu du 2016an itundutako 417.000 euroko mailegua.

Txosten honen III. atalean jasotako aurrekontu-egoera bateratuetan, aurreko alderdi horiek doitu dira.

- Udalean, inkoherentzia aipagarriak aurkitzen dira balantzearen “funts propioak” osatzen dituzten saldoetan. Esate baterako:

a) Ez datoz bat ekitaldiko emaitzak, funts propioak jasotzen dituztenak, emaitzen kontuan islatzen denarekin, ez 2015eko ekitaldirako, ez eta 2016ko ekitaldirako ere.

b) Ondareak balio negatiboak dauzka bi ekitaldietan, eta zenbateko berarekin.

c) Aplikatzeko dauden emaitzen zenbatekoa ez da bi ekitaldietan aldatu.

- Diruzaintza. Honako gorabehera hauek ikusi dira:

a) Ez dira banku-berdinkatzeak ageri; eta kontaketa-aktei dagokienez, Udalarena baizik ez da ageri, eta hura ere ez dago behar diren sinadurekin behar bezala formalizaturik.

b) Kontabilitate-saldoak eta kontu korranteetako banku-kontabilitatearen saldoak alderatuta, ikusten da azken horietan 222.047 euro gehiago daudela.

Alde hori honako arrazoi honekin azaltzen da:

117.307 euro Udalak edo erakunde autonomoek abenduan kontabilizatutako idazpenei dagozkie, eta finantza-entitateak urtarrileko dataren jaso ditu, edo alderantziz.

97.467 euroko kopurua aurreko urteetan Udalak egindako transferentziei dagozkie, aurrekontuz kanpoko eragiketen barruan. Musika eskolak, ordea, ez ditu haiek jaso. Eskolak aitortzen dituen unean, Udalaren eta eskolaren aurrekontuei egozten zaizkie.

7.273 euro justifikatu gabeko diferentzia bati dagozkie. Txostenaren eztabaida-fasean, Udalak zenbateko hori ia guztia nola justifikatu detektatu du.

c) Kirol Patronatuak 13.415 euroko saldo negatiboa dauka bankuetan. Bestalde, zahar-etxeak ere kutxan 72 euroko saldo negatiboa du.

d) Finantza-kontu guztiek ez dituzte funtsak erabiltzeko sinadurak gaurkotuta.

- Inbentarioa. Udalak ez du ondasunen inbentariarik, eta gaur egun hura egiten ari da. Ez dago jasota halako jarduketarik egin denik erakunde autonomoen ondasunak direla eta.

Bestalde, Udalak ez du Lurzoruaren Udal Ondarearen ondasunen inbentariarik –halako izaerarekin, atxikia eta bereizita–, ez eta lurzoruaren udal ondarearen erregistrarik ere.

- Hirigintzan, plan indarduna 1999koa da, eta Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legeari egokitu gabe dago.

Udalak ez du ezarri hirigintza-hitzarmenei buruzko erregistrarik, ez eta artxibo administratiborik ere.

- Udalak ez du definitu bere erakunde autonomoek egindako jarduerak kontrolatzeko eta gainbegiratzeko sistemarik.

Gure gomendioak:

- *Udalaren aurrekontu orokorra onestea legeria indardunean aurreikusitako epeen barruan.*
- *Kontu orokorrean erakunde autonomoak direla-eta araudiak aurreikusten duen dokumentazio guztia jasotzea.*
- *Balantzearen saldoen eta emaitzen kontuaren saldoaren koherentzia aztertu eta berrikus-tea.*
- *Finantzen egoera-orri guztiak bateraturik aurkeztea, Udalak eta haren erakunde autonomoek garatutako jarduera guztien irudi fidela hobetzeko.*
- *Aldizka, bai Udalak, bai erakunde autonomoek, banku-berdinkatzeak eta kutzako kontaketa-aktak egitea, eta haiek behar bezala formalizatu eta sinatzea.*
- *Finantza-kontuetako eta kutzako saldo negatiboak kitatzea.*
- *Kontu korrontetako funtsak erabiltzeko sinadurak gaurkotzea.*
- *Udal inbentarioa egiteko prozesua amaitzea eta kontabilitate-saldoak haren balorazioaren arabera doitzea. Prozesu horretan erakunde autonomoen ondasunak jasotzea.*
- *Udal-inbentarioa etengabe eguneratzeko eta hura kontabilitatearekin konektatzeko bidea emanen duten prozedurak diseinatu eta aplikatu behar dira, ibilgetuari buruzko altak eta bajak kontabilizatu eta dokumentazioa artxibatzeke prozedurak definituz eta ezarriz, kontu hauei aplikatzekoak zaizkien irizpideen arabera.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarearen erregistro eta inbentarioa ezartzea.*
- *Udal plan orokorra Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzea.*
- *Hirigintza-hitzaermen erregistroa ezartzea.*
- *Erakunde autonomoen kudeaketa kontrolatzeko eta gainbegiratzeko sistemak ezartzea.*

#### IV.4. LANGILE-GASTUAK

Udalaren eta haren erakunde autonomoen langileria-gastua guztira 2,73 milioikoa izan da 2016an; honako hau izan da entitateen arabeko banaketa eta aurreko ekitaldikoarekiko bilakera:

	2015	2016	Aldea
Udala	1.393.746	1.444.581	4
Musika eskola	383.635	384.013	-
Kirol Patronatua	18.092	17.703	-2
Zahar-etxea	847.389	882.052	4
Guztira	2.642.862	2.728.349	3



Gastu horien xehetasunak ondoren datozenak dira:

Langile-gastuak	Aitortutako betebeharrak		Aldea (%)
	2015	2016	
Hautetsien lansariak	45.848	44.781	-2
Funtzionarioak	220.005	611.549	178
Lan-kontratudun finkoak	335.767	96.867	-71
Aldi baterako lan-kontratudunak	221.737	92.821	-58
Gainerako langileak	10.914	9.469	-13
Kuota sozialak	559.475	577.718	3
Beste langile-gastu batzuk	0	11.376	-100
<b>Udala, guztira</b>	<b>1.393.746</b>	<b>1.444.581</b>	<b>4</b>
Lan-kontratudun finkoak	301.853	302.018	0
Kuota sozialak	81.782	81.995	0
<b>Musika eskola, guztira</b>	<b>383.635</b>	<b>384.013</b>	<b>0</b>
Aldi baterako lan-kontratudunak	13.853	13.791	0
Kuota sozialak	4.239	3.912	-8
<b>Kirol Patronatua, guztira</b>	<b>18.092</b>	<b>17.703</b>	<b>-2</b>
Lan-kontratudun finkoak	654.669	600.484	-8
Aldi baterako lan-kontratudunak	0	88.820	-100
Kuota sozialak	189.508	191.410	1
Beste langile-gastu batzuk	3.212	1.338	-58
<b>Zahar-etxea, guztira</b>	<b>847.389</b>	<b>882.052</b>	<b>4</b>
<b>1. kapitulu bateratua, guztira</b>	<b>2.642.862</b>	<b>2.728.349</b>	<b>3</b>

2016ko langileria-gastuak ehuneko hiru egin du gora aurreko ekitaldikoarekiko. Igoera hori justifikatu da, funtsean, 2012ko aparteko soldataren zati bat ordaindu delako eta 2016ko ekitaldian soldatetan ehuneko bateko igoera aplikatu delako.

Langile funtzionarioen gastuaren igoeraren arrazoia da gastuak kontzeptu mailan xehakatu direla, toki entitateen aurrekontu-egitura berriari jarraituz.

Udaleko langileen enplegu-baldintzak, oro har, zenbait akordio eta hitzarmenen arabera arautzen dira. Hartara:

- Udaleko langile funtzionarioak: haien lan-baldintzak 2015etik 2017ra arautzeko akordio baten arabera.

- Udaleko eta Kirol Patronatuko lan-kontratupeko langileak: 2015etik 2017ra indarrean egon den hitzarmen kolektiboaren arabera.

- Musika eskola: 2015etik 2018ra bitarteko indarra duen hitzarmen kolektiboaren arabera.

- Zahar-etxeke langileek honako arau hauek dituzte:

- a) Langile funtzionarioak eta administrazio-kontratudun langileak: 2015etik 2018ra bitarte indarra duen lan-baldintzei buruzko akordioa.

- b) Lan-kontratupeko langileak: 2015etik 2018ra bitarte indarra duen hitzarmen kolektiboa.

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2016rako plantilla organikoaren behin betiko onepena 2017ko apirilaren 6an argitaratu zen NAO. Hona hemen xehetasunak:

Entitatea	Lanpostuen kopurua	Aktiboak	Lanpostu hutsak
Udala	26	19	7
Musika eskola	15	8	7
Kirol Patronatua	1	1	
Zahar-etxea	25	13	12
<b>Guztira</b>	<b>67</b>	<b>41</b>	<b>26</b>

Hau da, lanpostu guztietatik ehuneko 39 hutsik daude. Udalean hutsik dauden zazpi lanpostuetatik, sei aldi baterako lan-kontratuen bidez beteta zeuden; lanpostu hutsen portzentaje handiena zahar-etxean ikusten da: ehuneko 48.

Halaber, ikusten da aldi baterako kontratuekin betetako lanpostu horietan, oro har, hiru urteko epea gainditu egiten dela, batzuetan zabal gainditu ere.

2016an, ez da lan-eskaintza publikorik egin.

2016ko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoan 90 langilek lan egiten zuten; hona xehetasunak:

Entitatea	Langile kopurua 2016-12-31n
Udala	30
Musika eskola	20
Kirol Patronatua	1
Zahar-etxea	39
<b>Guztira</b>	<b>90</b>

Langile horietatik, guztira 39k –hau da, ehuneko 43k– aldi baterako lan-kontratu bat edo administrazio-kontratu bat dute.

Zahar-etxean eta Musika Eskolan egindako aldi baterako kontratazioen lagin bat aztertu dugu, zeren eta ez Udalak, ez Kirol Patronatuak ez baitute gisa horretako kontratazioerik egin 2016an. Egiaztatu dugu berdintasun-, merezimendu-, gaitasun- eta publizitate-printzipioen betetzea bermatzeko prozedurak aplikatu direla, eta aparteko kontratazioak direla, beharizan urgente eta geroraezinak betetzeko, edo lehentasunezko sektore bateko beharizanak betetzeko, edo funtsezko zerbitzu publiko baten funtzionamenduan eragina duten beharizanak betetzeko.

Halaber, Udalaren eta bere erakunde autonomoen nominen lagin bat aztertu dugu, eta egiaztatu dugu ordainsariak bat datozela lanposturako plantilla organikoan ezarritakoekin, inguruabar administratibo eta pertsonalak kasuko espediente pertsonaletan jasota daudela eta aplikatzekoa den araudiaren arabera direla. Dena den, honako gorabehera hauek ikusi ditugu:

- Lanpostu batzuetan, nominei aplikatutako osagarriak ez datoz bat plantilla organikoan jasotakoekin. Hala eta guztiz ere, alde horiek elkarren artean konpentsatzen dira, eta ez dute eraginik jasotako guztizkoan.

- Langile batzuek erantzukizuneko lanpostuak betetzen dituzte Udalean, eta erantzukizun hori ordaintzen zaiela bai plantillak erantzukizuneko lanpostu horretarako jasotako lanpostu-osagarriaren bidez, bai lanpostu-osagarri orokorraren beraren bidez ere. Azken batez, zerbitziburutzak betetzeko ordaintzen ari zaie, baina esleitzen zaien lansari osagarria ez dator bat egin-kizun horren izaerarekin.

- Udaltzaingoaren kasuan izan ezik, Udalak funtzionarioengatik langabeziarako kotizazioa ordaintzen du. Gizarte Segurantzari kopuru horiek itzultzeko eskatu zaio.

- Ez dago jasota PFEZaren atxikipenaren igoera formalki eskatu denik langile jakin batzuen nominan.

Gure gomendioak:

- *Egungo araudiaren testuinguruan, aldi baterako betetako lanpostuen egoera erregularizaztea, behar diren lan-eskaintza publikoetarako deia eginez.*
- *Egiazki ordaindutako osagarriak eta plantilla organikoak lanpostuetarako ezartzen dituenak berrikustea.*
- *Udaleko erantzukizuneko lanpostuei esleitutako osagarriak berrikusi eta aztertzea eta, kasua bada, haiek zuzendaritzako lanpostuen osagarri edo berariazko osagarri bihurtzea.*
- *Langileen PFEZaren atxikipearen igoerak dokumentu bidez formalizatzea.*

#### IV.5. ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN EGINDAKO GASTUAK

Udalaren eta haren erakunde autonomoen 2016ko betebeharrak aitortu bateratuek 1,96 milioi egiten dute, eta guztizko gastuaren ehuneko 35 dira. Banaka, izaera hori duten gastuek Udalaren gastuaren ehuneko 33 egiten dute, Musika Eskolaren gastuen ehuneko 16, Musika Patronatuaren gastuen ehuneko 58 eta Zahar-etxeko gastuaren ehuneko 25.

2015eko ekitaldiarekin alderatuta, gastu horiek gora egin dute erakunde autonomoetan; Udalaren kasuan, berriz, ehuneko sei jaitsi dira. Hona hemen xehetasunak:

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuak	2015	2016	Aldea (%)
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	432.435	327.009	-24
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	1.085.579	1.064.454	-2
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	3.146	2.959	-6
Aurreikusi gabekoak	0	34.752	100
<b>Udala, guztira</b>	<b>1.521.160</b>	<b>1.429.174</b>	<b>-6</b>
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	15.083	8.344	-45
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	47.851	63.602	33
Zerbitzuaren ondoriozko kalte-ordainak	350	100	-71
<b>Musika eskola, guztira</b>	<b>63.284</b>	<b>72.046</b>	<b>14</b>
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	44.355	40.884	-8
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	97.365	109.973	13
<b>Kirol Patronatua, guztira</b>	<b>141.720</b>	<b>150.857</b>	<b>6</b>
Konponketak, mantentze-lana eta kontserbazioa	29.998	38.768	29
Materiala, hornidurak eta bestelakoak	272.799	267.752	-2
<b>Zahar-etxea, guztira</b>	<b>302.797</b>	<b>306.520</b>	<b>1</b>
<b>2. kapitulu bateratua, guztira</b>	<b>2.028.961</b>	<b>1.958.597</b>	<b>-3</b>

Hurrengo bi kontratuak berrikusi dira, kapitulu honetan egotzitako Udalaren –kapituluko gastuaren ehuneko zortzi– eta Musika Eskolaren –beste enpresa batzuek egindako lanak– gastuen lagin gisa.

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikazio-prozedura	Balio zenbatetsia (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Adjudikazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	2016ko gastua (BEZik gabe)
Aterpetxearen kudeaketa	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera/prezioa	49.296 <sup>(1)</sup>	0	Esleitu gabe	-
Jantokia. Zahar-etxea	Laguntza	Irekia, Europar Batasuneko atalasetik behera/prezioa	164.099	3	144.347	83.579

<sup>(1)</sup> Luzapenak barne; urtebetekoak 12.324 euro gastua du.

Azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, aztertutako bi espedienteak araudi indardunean ezarritakoaren arabera izapidetu direla; halaber, aztertutako gastuak kasuko fakturetan justifikatuta daude, zuzen kontabilizatu dira eta, orokorrean, aplikatzekoa den araudia errespetatu da. Halaber, honako alderdi hauek nabarmentzen ditugu:

- Aterpetxea kudeatzeko kontratua eman gabe geratu zen, zeren eta ez baitzen eskaintzarik jaso; jarduera hori egiteko, Udalak erabaki zuen langabetuak kontratatzea Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bitartez, 14.756 euroko gastuarekin.

- Udal obretarako teknikari bat kontratatzeak 19.606 euroko gastua ekarri du 2016an. Teknikari horrek duela zenbait urte lan egiten du Udalarentzat, eta azken ekitaldietan ez zaio kontraturik egin. Aldizka fakturak egiten ditu ematen dituen zerbitzu profesionalengatik.

- Cantolaguako kirol instalazioen kudeaketarako kontratua ez zen luzatu bi urteko hasierako aldiaren ondoren –2013ko eta 2014ko ekitaldiak–, zerbitzuak ematen zituen enpresak hala erabakita. 2014ko azaroan, Udalak beste lizitazio baterako deia egin zuen, eta eman gabe geratu zen; 2015eko abenduan, berriz ere lizitatu zen instalazioen kudeaketa, eta enpresa bakarra aurkeztu zen. Onartua izan zen enpresa hori, baina azkenean eskaintza baliogabetu zuen, eta lehia-keta eman gabe geratu zen.

2016ko ekitaldian, kudeaketa oraindik ere hasieran kontratatutako enpresak egiten du, kontratu-luzapenik gabe. Urte honetako gastua 87.614 eurokoa izan zen.

Udalaren Osoko Bilkurak 2017ko ekainaren 14an hartutako erabakiaren bitartez, hasierako onespena eman zitzaion kapital guztiz publikoko merkataritza-sozietate bat sortzeari zerbitzua zuzenean kudeatzeko eta estatutuen proiektua egiteko. Behin betiko onspena 2017ko uztailaren 27ko NAO-n argitaratu zen. 2018ko martxoan, sozietatea sortu da, eta hura formalki eratzea falta da.

- Musika Modernoaren V. Mintegia. Musika Eskolako hiru langileri 2.700 euroko ordainketak egin zaizkie Mintegia antolatzen 2016ko ekitaldian emandako laguntzagatik. Ordainketak eskudirutan egin dira, eta nominatik kanpo. 2017an erabaki da gastu horiek nominan jasotzea.

- Musika Eskolaren garbiketa. Eskolaren garbiketa Udalak egiten du, eta Musika Eskolari fakturatzeko zaio. Hala eta guztiz ere, erakunde autonomoak ez ditu faktura horiek ordaintzen, eta haren ordainketa konpentsazio bidez gauzatzen da aldizka; Udalak diru-bilketa zaileko eskubide gisa hartzen ditu gastu horiek diruzaintza-gerakinean. Eskolak, berriz, 2016koak, urteko aurrekontuko aitortutako betebeharrerengatik hartzekodunetan erregistratzen ditu (14.914 euro); aurreko ekitaldietatik ordaintzeko daudenak, berriz, itxitako aurrekontuetan erregistratuta daude (23.963 euro).

- Udalak eta haren erakunde autonomoek ez dute kontrol eraginkorreko sistemarik ezarrita, horren bidez hirugarrenei kontratatutako zerbitzuen ematea zuzen betetzen den ebaluatzeko.

Gure gomendioak:

- *Kirol instalazioen kudeaketa-moduari buruzko erabakiak behin betiko hartzea.*
- *Behar diren kontratazio-espedienteak izapidetzea errepikakorrak izateagatik eta zenbatekoagatik araudiaren arabera hala jokatu behar den zerbitzuen kasuan.*

- *Kontrol-mekanismo bat garatzea, adjudikazio-hartzaileek zerbitzuak zuzen betetzen dituztela ebaluatu ahal izateko.*

- *Musika Eskolako garbiketaren fakturak udalari ordaintzeko prozedura erregulatzea.*

## IV.6. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK

Transferentzia arrunten gastu metatua –ez bateratua– 1,07 milioikoa izan zen 2016an, eta kapitaleko transferentziena, berriz, 28.300 eurokoa; hona hemen xehakatzea:

Transferentzia arruntengatiko gastuak	2015	2016
Entitatearen erakunde autonomoi	645.638	615.475
Mankomunitateei	88.492	84.349
Beste toki entitate batzuei	109.164	112.579
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	125.117	145.935
<b>Udala, guztira</b>	<b>968.411</b>	<b>958.338</b>
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	98.188	90.015
<b>Kirol Patronatua, guztira</b>	<b>98.188</b>	<b>90.015</b>
Beste toki entitate batzuei	28.000	28.000
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	829	829
<b>Zahar-etxea, guztira</b>	<b>28.829</b>	<b>28.829</b>
<b>4. kapitulua, guztira (metatua)</b>	<b>1.095.428</b>	<b>1.077.182</b>

Kapital-transferentziengatiko gastuak	2015	2016
Entitatearen erakunde autonomoi	0	5.428
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei	0	22.872
<b>Udala, guztira</b>	<b>0</b>	<b>28.300</b>
<b>7. kapitulua, guztira (metatua)</b>	<b>0</b>	<b>28.300</b>

Udalak bere erakunde autonomoi egindako transferentzien gastuengatiko guztizko zenbatekoa 620.903 eurokoa izan zen; Zangozako Eskualdeko Zerbitzuen Mankomunitaterako ekarpena, berriz, 84.349 eurokoa izan zen. Halaber, Gabarderalgo eta Rocaforteko kontzejuetarako diru-laguntzak jasotzen ditu, 25.748 eta 78.590 eurokoak, hurrenez hurren. Udalak emandako gainerako diru-laguntzak etxebizitzak zaharberritzeko eta jarduera sozialetarako zein kirol- eta kultura-jardueretarako dira.

Zahar-etxean, transferentzia arrunt gisa erregistratzen da Udalarentzako 28.000 euroko ekarpena, kudeaketa administratiboaren gastuetarako.

Transferentzia arrunten kapituluaren gastu bateratua, erakunde autonomoentzako ekarpenak kenduta, 433.708 eurokoa da.

Udalaren kapitaleko transferentzietan, bere erakunde autonomoi egindakoez gainera, lursailen desjabetzearengatiko gastu bat egozten da, Iratiko bide berderakoa: 22.872 euro egiten du.

Udalak 2013an onetsitako ordenantza bat badauka, honako arlo hauetako xedeetarako diru-laguntzak arautzen dituena: kultura, hezkuntza, kirola, gazteria, laguntza, giza laguntza eta gizarte laguntza.

Kirol Patronatuak familiei eta irabazi asmorik gabeko erakundeei egindako transferentzien ehuneko 90 Cantolagua Kirol Hiriaren Klubari egiten zaizkio, Udalarekin sinatutako hitzarmen baten ondorioz. Udala 2017ko ekitaldian hitzarmen hori berrikusten ari da.

Erakunde autonomoi eta Mankomunitateari egindako transferentziez gainera, Udalaren kapitulu honetako guztizko gastuaren ehuneko 17ko lagin bat egiaztatu da, aurrekoak deskontatuta; honako hau da, hain zuzen:

Kontzeptua	Aitortutako betebeharrak, 2016
Rocamador dantza taldearekiko hitzarmena	1.200
Bardeako Ubideko Ureztatzaileen Elkartearen derrama	19.569
Cedernarentzako ekarpena	31.040
Etxebizitzak zaharberritzeko laguntzak	6.605
<b>Guztira</b>	<b>58.414</b>

Egindako azterketatik ondorioztatzen dugu berrikusitako transferentzien onespena, justifikazioa, kontabilizazioa eta ordainketa, oro har, araudiaren arabera direla.

#### IV.7. INBERTSIOAK

Inbertsioengatikoko gastu bateratua 232.268 eurokoa izan da 2016an, eta betetze-maila ehuneko 27koa izan da.

Inbertsio aipagarrienak honako hauetan egindakoak dira: Cantolaguako kirol-eremuan – 49.608 euro–, ur-sareko hodietako konponketak –21.025 euro–, barneko seinaleak –16.594 euro–, haurrentzako parkea –14.484 euro– eta udaltzaingoarentzako garraio-ibilgailua –13.900 euro–; guztira, ekitaldiko inbertsioaren ehuneko 50 egiten dute.

Musika Eskolan, musika tresnak erosteko gastua jasotzen da, 3.998 eurokoa; Kiroletan, berriz, askotariko erosketak, 2.568 euro egiten dutenak, eta zahar-etxean, berriz, 6.416 euro egiten duten erosketak.

Hurrengo bi kontratuak berrikusi dira, bai eta Udalaren eta zahar-etxearen inbertsioen lagin bat ere –gastuaren ehuneko 20 eta ehuneko 100 egiten dute, hurrenez hurren–.

Deskribapena	Kontratu-mota	Adjudikazio-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	Eskaintzak egin dituztenak	Esleipen zenbat (BEZik gabe)	2016ko gastua (BEZik gabe)
Kanpoko argiteria publikoa	Obra	Irekia, Europako mugatik behera/eskaintzarik onena	333.232	10	326.567	-
Udaltzaingoaren ibilgailua	Hornidurak	Irekia, europar atalasetik behera /eskaintzarik onena	14.876	1	11.487	11.487

Azterketatik ondorioztatzen da ezen, oro har, aztertutako bi espedienteak araudi indardunean ezarritakoaren arabera izapidetu direla; halaber, aztertutako gastuak kasuko fakturretan justifikatuta daude, zuzen kontabilizatu dira eta, orokorrean, aplikatzekoa den araudia errespetatu da.

Kanpoko argiteria publikoaren obra hura berritzeari dagokiona da, egungo energia-kontsumoa gutxitzeko beharrari erantzuteko eta energiaren erabilera hobea lortzeko. Obra hori Estatuko entitate publiko batek –IDAE-Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Institutua– finantzatu du, 2016ko azaroan formalizatutako 417.000 euroko mailegu baten bidez; maileguak urtebeteko gabealdia du, eta ez du interesik.

2016ko ekitaldian soilik erregistratu da obra horien proiektuko erredaktoreei ordainsarien ehuneko 50 ordaintzetik heldutako gastua, 11.289 eurokoa; gainerako ordainsariak eta obren ziurtagiriak 2017ko aurrekontuari egotzi zaizkio. Ordaintzeko gelditu den kopurua baliabide atxikiengatik 2016ko diruzaintza-gerakinean jaso da.

## IV.8. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2016ko ekitaldiko kapitulu bakoitzarengatik aitortutako eskubide bateratuak eta haien eta aurreko ekitaldikoaren arteko alderaketa ondoko taula honetan adierazten dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Aitortutako eskubide garbiak		Aldea (%) 2016/2015
	2015	2016	
1. Zuzeneko zergak	1.607.909	1.557.138	-3
2. Zeharkako zergak	14.737	100.522	582
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	2.159.717	2.103.716	-3
4. Transferentzia arruntak	1.557.978	1.691.540	9
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	166.615	93.792	-44
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>5.506.956</b>	<b>5.546.708</b>	<b>1</b>
6. Inbertsioen besterentzea	60.573	0	-100
7. Kapital-transferentziak	85.559	317.687	271
<b>Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)</b>	<b>146.132</b>	<b>317.687</b>	<b>117</b>
8. Finantza-aktiboak	0	0	-
9. Finantza-pasiboak	0	417.000	-
<b>Finantza-eragiketen bidezko diru-sarrerak (8. eta 9. kapituluak)</b>	<b>0</b>	<b>417.000</b>	<b>-</b>
<b>Diru-sarrerak, guztira</b>	<b>5.653.087</b>	<b>6.281.395</b>	<b>11</b>

2016ko ekitaldian aitortutako eskubideak 6,28 milioikoak izan dira; horietatik, 5,55 milioi diru-sarrera arruntei dagozkie, 0,32 milioi, berriz, kapitaleko diru-sarrerei eta 0,42 milioi, azkenik, finantza-eragiketetatik heldutakoei. Diru-sarreraren aurrekontuaren betetze-maila ehuneko 96koa izan da; nabarmentzekoak dira zeharkako zergak, ehuneko 112, eta kapital-transferentziak, ehuneko 129.

2015eko ekitaldiarekin alderatuta, diru-sarrerak ehuneko 11 egin dute gora; horren arrazoia dira, funtsean, transferentzien bidez lortutako diru-sarrerak eta finantza-pasibo bat lortu izana.

Erakunde autonomo bakoitzaren 2016rako banakako diru-sarrerak ondoko taulan adierazita-koak dira:

Diru-sarreraren kapituluak	Kirolak	Musika	Zahar-etxea
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.302	203.590	1.047.745
4. Transferentzia arruntak	259.054	254.067	171.362
7. Kapital-transferentziak	1.427	4.000	171.473
<b>2016ko diru-sarrerak, guztira</b>	<b>263.783</b>	<b>461.657</b>	<b>1.390.580</b>

Kiroletan, nabarmentzekoa da funtsean Udaletik heldutako diru-laguntzekiko mendetasun finantzario erabatekoa; Musikan, diru-laguntzak oso garrantzitsuak izanda ere –Udalaren 203.889 euro eta Nafarroako Gobernuaren 50.178 euro–, nabarmentzekoak dira, halaber, ikasleen tasen bidezko diru-sarrerak. Zahar-etxean, diru-sarrera aipagarriena egoiliarren kuotetatik heldutakoa da; halaber, nabarmentzekoak dira kapitaleko transferentziak, jaraunspen batetik heldutakoak.

## a) Zergak.

Ondorengo taulan udal zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

Udalaren zergak	Aitortutako eskubideak		Aldea (%) 2016/2015
	2015	2016	
Landa-lurraren gaineko kontribuzioa	76.654	76.749	0
Lurraren kontribuzioa	948.734	912.775	-4
Ibilgailuak	267.498	272.738	2
Lurren balio-gehikuntza	55.048	41.132	-25
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	262.458	253.744	-3
EIOZa	14.737	100.522	582
<b>Guztira</b>	<b>1.622.646</b>	<b>1.657.660</b>	<b>2</b>

Alde garrantzitsuenak EIOZaren likidazioan ikusten dira, zeren eta obrak egiteko eskaeren espedienteen kopurua handiagoa izan baita.

Udalak aplikatutako tasak hurrengo taulan ikus daitezke:

Tributua	Udala	2/95 Foru Legea
Landa kontribuzioa	0,8	0,10-0,50
Hiri kontribuzioa	0,456	
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1,4	1 - 1,4
Lurren balio-gehikuntza		
Gaurkotzearen koefizientea	2,5 eta 2,7 bitarte	2 eta 3,3 bitarte
Zerga-tasa	13,95	8 eta 20 bitarte
EIOZa	5	2,5 eta 5 bitarte

Indarrean dagoen balorazio-ponentzia 2002koa da; gaur egun, gaurkotze berri bat idazten ari da, eta espero da 2018ko ekitalditik aurrera aplikatzea. Horrenbestez, Udalak hiri-lurraren kontribuzioari eta landa-lurraren kontribuzioari aplikatzekoak zaizkien tasak bereizten jarraitzen du, ez baititu horiek egokitu araudi indardunean ezarritako tasa bakarraren arabera.

Hainbat zergaren lagin baten gainean egindako lanetik, ondorioztatzen dugu horiek guztiak zuzen ordainarazi eta kontabilizatu direla.

Udalak kontrol fiskaleko plan bat dauka ezarria, Tracasa sozietate publikoaren bitartez, bi aldeek 2014ko uztailean sinatutako kontratu baten arabera.

Gure gomendioak:

- *Balorazio-ponentzia eguneratzeko prozesua amaitzea.*
- *Tasa bakarra onestea hiri-lurraren kontribuziorako eta landa-lurraren kontribuziorako, legeria indardunean ezarritakoari jarraituz.*



## b) Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk.

Tasengatiko eta bestelako diru-sarrerengatiko 2016ko aitortutako eskubide bateratuek 2,10 milioi egiten dute; hona hemen haien xehetasunak eta bilakaera:

Deskribapena	2015	2016	Aldea (%)
30 Uraren eta estolden tasa, eta nitxoen emakida berritzea	310.552	309.881	0
31 Haur hezkuntzako ikastetxeko jantokiko kuotak	26.695	26.375	-1
32 Hirigintza-lizentzien eta dokumentuen tasak, eta ibilgailuak erretiratzeagatiko tasak	172.721	92.015	-47
33 Lurgainaren eta lurpearen okupazio-tasak, ibiak, mahaia jartzea...	341.367	297.601	-13
34 Auditorioaren tasak, eskolatzeko-kuota eta ikastaroengatiko prezio publikoak	120.040	96.212	-20
36 Jaietako programaren salmenta	1.531	1.546	1
39 Isunak eta berandutzagatiko errekariguak	20.084	25.649	28
<b>Udala, guztira</b>	<b>992.990</b>	<b>849.279</b>	<b>-14</b>
31 Musika Modernoaren V. Mintegia	11.750	9.075	29
34 Ikasleen tasak eta bestelako askotariko diru-sarrerak	191.840	173.315	11
<b>Musika eskola, guztira</b>	<b>182.390</b>	<b>203.590</b>	<b>12</b>
34 Jarduerengatiko kuota	3.302	2.457	34
<b>Kirol Patronatua, guztira</b>	<b>2.457</b>	<b>3.302</b>	<b>34</b>
31 Garraio-kuotak	2.356	3.038	-22
34 Egoiliarren kuotak	1.045.389	978.843	7
<b>Zahar-etxea, guztira</b>	<b>981.881</b>	<b>1.047.745</b>	<b>7</b>
<b>3. kapitulu bateratua, guztira</b>	<b>2.159.717</b>	<b>2.103.916</b>	<b>-3</b>

Udalaren gisa honetako diru-sarreraren lagin bat egiaztatu dugu –uraren tasa, energiaren salmenta eta isunak–, bai eta zahar-etxearen diru-sarreraren lagin bat ere –egoiliarren kuota–. Egingadako lanetik ondorioztatu dugu kapituluko diru-sarrerak zuzen likidatu, justifikatu eta kontabilizatu direla, eta indarreko arauen arabera direla.

## c) Transferentzien ondoriozko diru-sarrerak.

Udalaren transferentzien bidezko diru-sarrerak 1,80 milioi egiten dute guztira, eta ehuneko 10 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Zenbateko horretatik, transferentzia arruntak ehuneko 92 dira.

Transferentzien bidezko diru-sarrerak, Udala	Aitortutako eskubideak		Aldea (%)
	2015	2016	2016/2015
Toki ogasunetan parte hartzeko funtsa	1.229.055	1.252.407	2
Funtzionarioen montepioak	121.062	130.681	8
Haur hezkuntzako ikastetxeko eskolatzeara	50.843	60.688	19
Udalbatzako kideen ordainsariak:	44.141	50.428	14
Luis Gil ikastetxea	6.922	21.672	213
Kooperatibei JEZeant emandako hobaria	14.563	14.249	-2
Beste diru-laguntza batzuk	49.288	44.045	-11
<b>Guztizkoa atal honetan (Nafarroako Gobernua)</b>	<b>1.515.873</b>	<b>1.574.170</b>	<b>4</b>
Estatuarenak	6.292	4.123	-34
Entitatearen erakunde autonomoenak	28.000	28.000	0
Beste toki entitate batzuenak	52.417	42.039	-20
Enpresa pribatuak	13.400	2.200	-84
<b>Beste hainbat entitate, honaino, guztira</b>	<b>100.109</b>	<b>76.362</b>	<b>-24</b>
<b>4. kapitulua, transferentzia arruntak, guztira</b>	<b>1.615.981</b>	<b>1.650.532</b>	<b>2</b>
Nafarroako Gobernua	23.353	146.214	526
<b>7 kapitulua, kapital-transferentziak, guztira</b>	<b>23.353</b>	<b>146.214</b>	<b>526</b>
<b>Udalaren transferentziak, guztira</b>	<b>1.639.334</b>	<b>1.796.746</b>	<b>10</b>

Nafarroako Gobernutik jasotako transferentziak alderatu dira haren kontabilitate-informazioarekin, eta ez da aipatzeko moduko alderik aurkitu.

Bestalde, Zahar-etxeak 2016ko ekitaldian jaraunspen bat jaso du, zeren eta ezarritako jaraunspen batek erabili gabeko ondasunen hondarraren jaraunspen fideikomisodun izendatu baita. Jasotako ondasunak higiezin bat –60.000 euroko katastro-balioa duena– eta 171.473 euro egien duten eskudiruko eta inbertsio-funtsetako saldoak; azken zenbateko horren aitortza egiaztatu da.

## d) Ondarearen bidezko diru-sarrerak eta herri-lurretako aprobetxamenduak

Kapituluan aitortutako diru-sarrerak 93.792 euro egin dute, eta betetzearen maila % 96koa izan da. 2015ean, diru-sarrera 166.615 eurokoa izan zen; horretatik, baso-aprobetxamenduak 83.387 euro izan ziren. Diru-sarrera horiek ez daude jasota 2016an.

Kapitulu honetako 2016ko diru-sarrerak Udalari dagozkio soilik, eta honako hau da haren partidaz partidako xehakatzeara:

Deskribapena	Aitortutako eskubideak
Errentamenduak	8.468
Ondasun higiezinetak	6.000
Ehiza barrutia errentan ematea	2.710
Kanonak	76.614
Herri-alorren adjudikazioa	7.597
Ebroko Konfederazio Hidrografikotik, herri-lurrak	111
La Sarda alorraren errentamendua	45.989
Corraliza alderdiko herri-lurretako larreen adjudikazioa	22.917
<b>5. kapitulua</b>	<b>93.792</b>

La Sarda alorraren errentamenduaren kanona berrikusi dugu, eta ikusi dugu haren partidari, kontabilitate-tratamenduko akats bat tarteko, behar baino 41.286 euro gehiagoko diru-sarrerak egotzi zaizkiola. Diru-sarrera horiek herri-lurren aprobetxamenduari dagozkio; akats hori zuzendu egin da 2017ko ekitaldirako. Finka horren errentamenduari dagokion diru-sarrera 4.718 eurokoa da.

e) Itxitako ekitaldietako aurrekontuak. Diru-sarrerak.

Hurrengo tauletan itxitako aurrekontuetako diru-sarreraren kontzeptu horren bilakaera erakusten dugu, bai Udalarentzat, bai Zahar-etxearentzat:

Udala/Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko kobrantzak	Kaudimen gabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	608.090	334.376	1.692	272.022	23	55
2014	183.373	31.935		151.438	13	17
2013	106.128	8.157		97.971	8	8
2012	86.722	3.601		83.121	7	4
2011	95.029	1.078		93.951	8	1
2010	75.454	607		74.847	6	1
2009a eta aurrekoak	428.498	1.882		426.616	36	0
<b>Udala, guztira</b>	<b>1.583.294</b>	<b>381.636</b>	<b>1.692</b>	<b>1.199.966</b>	<b>100</b>	<b>24</b>

Zahar-etxea/Urtea	Hasierako saldoa 2016-01-01ean	2016ko kobrantzak	Kaudimen gabeziak eta beste baja batzuk	Amaierako saldoa 2016-12-31n	Amaierako saldoa (%)	Hasierako saldoaren gaineko kobrantzen %
2015	63.845	48.705	-22	15.162	16	76
2014	1.708			1.708	2	0
2013	23.792			23.792	26	0
2012	19.310		1.000	18.310	20	0
2011	14.872		1.000	13.872	15	0
2010	16.311			16.311	18	0
2009	3.286	15		3.271	4	0
<b>Zahar-etxea, guztira</b>	<b>143.124</b>	<b>48.720</b>	<b>1.978</b>	<b>92.426</b>	<b>100</b>	<b>34</b>

Udalean, izaera ekonomikoari erreparatuta, zergek eta tasek 2016ko abenduaren 31ko amaierako saldoaren ehuneko 53 eta 46 egiten dute, hurrenez hurren; zahar-etxean, guztiak egoiliarrek ordaintzeke dituzten kuotei dagozkie.

Bide exekutiboan dagoen zorra enpresa batek kudeatzen du, 1995eko urriaren 20an sinatutako kontratu batetik heldutako harreman baten bidez. Gisa horretako kontratuen indarraldiaren legezko muga gainditu da. 2017ko apirilean, enpresa horri 2014ko, 2015eko eta 2016ko ekitaldietatik kobratzeke dauden zorrak igorri zaizkio, kudea ditzan.

Gure gomendioak:

- *Itxitako ekitaldietako diru-sarrereren saldoak berrikustea, gaur egun behin betiko kobraezintzat jo daitezkeen idazpenak kentzeko.*
- *Itxitako aurrekontuetako diru-sarrereren kontzeptu desberdinen kobrantza errazten duten metodo eta mekanismoak indartzea.*
- *Kobrantzak kudeatzeko behar den kontratazio-espeditatea izapidetzea.*

Ignacio Cabeza del Salvador auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta eman da txosten hau, indarrean dagoen araudiak aurreikusitako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2018ko martxoaren 27an

Lehendakaria,

Asunción Olaechea Estanga